

Autonomia, sozialistak eta udalak (eta 2)

Deia, 1983-08-08.

Espanian, demokrazia eraikitzeko gizonagan eta herriagan *jarri behar den* konfidantza falta da.

Haurrak balira bezala tratatzen baidituzte.

Eta ez da kuarteletako gaitza bakarrik, sozialistak ere ahulezia bera erakusten dute agintea hartzen duten bakoitzean.

Oraingo horiek diktatoreen *mesfidantza* beraz jokutzen dute, eta honek sortzen dituen *malizia, kezka, susmoa* eta *jelosia* beraz. Material hauekin kartzelak egin daitezke handiak, eta konzentrazio zelaiak ere. Bai Chilen eta Cuban, baita hemen ere. Baina ezin da demokraziarik eraiki.

Oraingo aginkeriarik gure herriak nola erantzun dion?

Errepublika garaian bezala; hara historia pitin bat: Espainian Errepublika nagusitu zenean (1931 *garrengo apirilak 14*), Agirrek berehala, 15ean, bildu zituen Bizkaiko udalak, eta biharamunean, 16an, hartu zen Gernikan Euskal Herriko Udalen Batzar Nagusia egiteko erabakia. Agirrek, alderdien arteko bideak nahiko galduak zeudela ikusirik, herribide zuzena aukeratu zuen, udalena; Prietori ez zitzaion gustatu; Madrilek soldaduak bidali zituen batzarra debekatzeko. Hemen eman ziguten eskuineko esku pozoindua; maiatzak 2: lau eskualdeko udalak elkartzen dira; ordurako Madrilek (apirilak 21) ezarri zizkigun *bere* "Gestoras" Diputazioetan; alkateen erantzuna: biltzen dira Iruinean, maiatzak 27, Estatutua eskatzen, eta Lizarran, ekainak 14. Errepublikako antiklerikarismo zaharrak bultza ginuen eskuinera; eskuinekoak, berriz, egin ziguten betikoa, saldukeria. Bien bitartean Catalunyak lortu zuen Estatutua, eta Donostian izenpetu 1932 *garrengo irailak 15*, euskaldunak itxaropentzeko. Baina eskuina jartzen da agintzen, Gil Robles buru, "bienio negro" honek lotzen gaitu ezkerrekin, eta alkateen batzarra eratzen da, orain Prieto ere bai!, Zumarragan, 1934 *garrengo urriak 2*.

Gerta daitekeena da, Errepublika garai hartan gertatu zen lez, oraingoan ere sozialistek gure udalen eta estutuaren aurkako lanetan jartzea. Gure Udalek eman dute batzar nagusia (EUDEL, 1983 *garrengo uztailak 30* Gernikan) erantzuna: badute herrian agintariarik Diputazio Forala eta Euskal Jaurlaritza. Baina utzi berria dugun historia zaharrari jarraituz: Haren ondorioak gerra eta heriotzak, fusilamentuak, kartzela eta exilioa izan ziren; sozialista espainolek garaiz beste jokabidea izan ez zutelako. Agian, eta zoritxarrez, arrapailu berean eror gaitzke gaur sozialista espainolak eta ez garenak berriz ere. Tristeia izango litzateke gizaldi erdian bi aldiz orma beraren kontra, barrote beren atzetik eta exilio berean elkarri begira geratzea.